



## **ZENBAIT ONDASUN HIGIEZINEN ENKANTEA EGITEKO BALDINTZEN KARATULA BEREZIA**

### **1.- ENKANTEAREN XEDEA:**

VI. ERANSKINEAN zerrendatzen diren eta VII. ERANSKINEAN deskribatzen diren ondasun higiezinak besterentzea.

Besterentze hori Arabarri SA sozietatearen Ezohiko Batzar Orokor eta Unibertsalak onartu zuen, likidazioan, 2020ko azaroaren 24an, aktaren lehen eta bigarren puntuetan.

### **2.- KONTRATAZIO ORGANOA:**

Arabarri SA sozietate publikoaren likidatzaileak.

### **3.- ESPEDIENTE ZENBAKIA:**

2021/03

### **4.- LIZITAZIO OINARRIA:**

Ondasun higiezin bakoitzarena adierazten da, VI. ERANSKINEAN.

### **5.- BEHIN-BEHINEKO FIDANTZA:**

Eskaintzaren xede d(ir)en ondasun(ar)en lizitazio oinarriaren % 1.

### **6.- BALDINTZEN AGIRIA:**

Interesdunek hauexetan dute eskuragai:

- Demografia Erronkaren Zuzendaritza (Probintzia plaza 14 – 1. solairua atzealdean. Gasteiz).
- Arabako Foru Aldundiaren web orria ([www.araba.eus](http://www.araba.eus)).
- Arabarri SA sozietate publikoaren web orria ([www.arabarri.net](http://www.arabarri.net)).
- 

### **7.- HIGIEZINEN DOKUMENTAZIOA:**

Hauetan eskatu edo kontsulta daiteke:

- Demografia Erronkaren Zuzendaritza (Probintzia plaza 14 – 1. solairua atzealdean. Gasteiz).
- Posta elektronikoko helbide hau: [retodemografico@araba.eus](mailto:retodemografico@araba.eus)
- Arabako Foru Aldundiaren web orria ([www.araba.eus](http://www.araba.eus)).
- Arabarri SA sozietate publikoaren web orria ([www.arabarri.net](http://www.arabarri.net)).



## **8.- AURKEZTEKO EPEA:**

15 egun natural, enkante honen deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## **9.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA:**

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra (Probintzia plaza 5, beheko solairua, GASTEIZ). Eskaintzak postaz ere bidali ahalko dira, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak 80. artikuluan ezarritakoaren arabera.

## **10.- AURKEZTEKO MODUA:**

Bi gutun azal aurkeztu behar dira (“A” eta “B”) eta barruan baldintzen agirian adierazten dena sartu. Azalean esaldi hau idatzi behar da: “ONDASUN HIGIEZINEN ENKANTEA 2021” (eskuratu nahi den ondasun higiezinaren izena idatzi behar da).

Lizitatuzaile bakoitzak eskaintza bakarra aurkeztu ahal izango du ondasun higiezin bakoitzeko. Lizitatuzailearen batek arau hau hautsiz gero, berak sinatutako eskaintza guztiak ezetsiko dira.

## **11.- ESKAERA EREDUA:**

Honekin batera doaz baldintzen agiriak, I. eranskin gisa.

## **12.- KONTRATAZIO MAHAIAREN OSAERA:**

- Erroka Demografikoaren zuzendaria, mahaiburu izango dena.
- Lurralde Orekaren zuzendaria.
- Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuaren burua, mahaiko idazkari lanak egingo dituena.
- Demografia Erroren Zuzendaritzako teknikari bat.  
Aurreko guztiek beste pertsona bat eskuordetu dezakete.

## **13.- ESKAINTZAK IREKITZEA:**

Eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta bosgarren egun baliodunean irekiko dira bi gutun azalak.

## **14.- ESLEIPENA:**

Kontratazio Mahaiak garaiz eta forma egokian aurkezten diren agiriak kalifikatuko ditu, eta, ondoren, jendaurreko ekitaldian, onartutako eskaintzak irekiko ditu eta kontratua preziorik handiena eskaintzen duenari adjudikatzea proposatuko dio kontratazio organoari.

Esleipena HOGEITA HAMAR EGUN balioduneko epean egingo da, gutun azalak ireki ondorengo egunetik aurrera.

## **15.- PREZIOA ORDAINTZEA:**



45 egun, esleipena jakinarazten denetik aurrera.

**16.- TRIBUTU, NOTARIO GASTUAK ETA ERREGISTRO GASTUAK:**

Indarreko araudiaren arabera ordainduko dituzte alderdiek tributuak.

Notario eta erregistro datuak esleipendun-eroslearen kargura izango dira.

**17.- ESKRITURAK SINATZEA:**

Ondasun higiezia(k) adjudikatzeko prezioa osorik ordaindu eta gero, adjudikaziodunak eskriturak sinatzeko eskatu ahal izango dio enpresari.

**18.- ONDASUN HIGIEZINAK ERABILI AHAL IZATEA.**

Ondasun higiezia(k) adjudikaziodunaren eskura egongo d(ir)a adjudikazioaren zenbateko osoa ordaindu ondoren eta, edonola ere, eskriturak sinatuz gero.

Gasteiz, 2021eko apirilaren 16a.



## **ARABAKO FORU ALDUNDIAREN JABETZAKO HIGIEZINAK ENKANTE BIDEZ BESTERENTZEA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN AGIRIA**

### **I.- XEDEA.**

Baldintza agiri honen xedea Arabarri Saren hiri ondasun higiezin batzuk besterentzea da. Ondasun higiezin horiek VI. ERANSKINEAN ageri dira.

Ondasun higiezinak banaka xehatzen dira VII. ERANSKINEAN.

### **II.- ESLEIPEN PROZEDURA.**

Prozedura irekia enkante publiko bidez eta gutun azal itxietan aurkeztuta, lizitazio oinarriaren ginetik.

### **III.- LIZITAZIO OINARRIA.**

Karatularen 4. puntuan ezartzen da.

### **IV.- BEHIN-BEHINEKO FIDANTZA.**

1.- Enkantean parte hartzeko nahitaezkoa izango da karatularen 5. puntuan aipatzen den behin-behineko fidantza jartzea.

2.- Fidantza jartzeko hiru modu daude, eta bakoitzean agiri bat jasoko da fidantza jarri izana frogatzeko:

- Fidantza eskudirutan eraten bada, Aldundiak Arabako Lurralde Historikoan sukurtsal bat duen edozein banketxetan edo aurrezki erakundetan dituen kontu korrante arruntetan sartu izanaren frogagiria.

- Banku abal bidez ere eratu daiteke; horrela eginez gero, abala Foru Aldundiaren Finantza Kudeaketa Zerbitzuan sartu delako frogagiria aurkeztu beharko da. Alabaina, badago beste aukera bat ere: lizitatuzaileak abalaren agiria aurkez dezake eskaintzarekin batera doan dokumentazioaren barruan; agiri hori Finantza Kudeaketa Zerbitzuak behar bezala askietsita egon behar da.

- Kauzio arloan eragiteko baimena duen aseguru erakunde batekin egindako kauzio aseguruaren kontratua.

- Fidantza banku abal bidez eraten bada, Foru Aldundiak onartutako eredu ofizialari egokituko zaio (eredua III. eranskinean dago) eta hurrengo hauetakoren batek egin beharko du: Arabako lurralde historikoan jendearentzako bulegoa duen banketxe edo aurrezki kutxaren batek; aseguru erakunderen batek, Foru Aldundiaren behar bezalako baimena duenak horretarako eta Araban egoitza edo ordezkari-tza daukanak; edo elkarren bermerako sozietateren batek, Araban egoitza duenak. Gainera, erakunde abal emailearen ahaldunek, egintza hau egiteko behar besteko ahalordea dutenek, baimendu beharko dute, eta Arabako Foru Aldundiaren Finantza Kudeaketa Zerbitzuak askietsita egon beharko da.



3.- Bermeak berarekin dakar esleipendunak kontratuaren formalizazioa betetzea eta esleipen prezioa ordaintzea; azken kasu horretan. Eskudirutan jarri bada, prezioaren zatitzat hartuko da. Era berean, eskaintza arrazoirik gabe bertan behera utziz gero, fidantza atxikiko da.

4.- Ondasunen esleipendunek salerosketa kontratua formalizatu eta berehala, bermea iraungi eta lizitatzaillei itzuliko zaie, baldin eta esleipendun izan ez badira.

#### V.- ESKAINZAK AURKEZTEA.

A) Aurkezteko lekua.

Enkantean parte hartu nahi duten lizitatzailleek deialdiaren iragarkian ezarritako eta karatulako 9. puntuan adierazitako tokietan aurkeztu beharko dute eskaintza.

B) Eskaintza aurkezteko epealdia.

Karatularen 8. puntuan adierazten da.

C) Eskaintzak aurkezteko modua.

Bi gutun azal aurkeztuko dira, "A" eta "B" hizkiekin, karatulako 10. puntuan adierazitako legendarekin, eta eskaintza aurkezten duen pertsonak sinatu beharko ditu, haren edo bere ahaldunaren izena jarrita.

1.- "A" gutun azalean eskaintza ekonomikoa soilik sartu behar da. Baldintzen agiri honen I. eranskinean ezartzen den ereduaren arabera egin behar da.

2.- "B" gutun azalean ondoko hauek sartu behar dira:

2.1. Aurkezlea pertsona fisikoa bada, NANaren fotokopia.

Aldiz, pertsona juridikoa bada, IFZren fotokopia eta eraketa eskritura edo akta sartu behar da. Honek legezko betekizun guztiak bete behar ditu eta horrez gainera merkataritza erregistroan (edo behar diren erregistro publikoetan) behar bezala inskribatuta egon behar da edo, indarreko legeriaren arabera beharrezkoa izanez gero, administrazioaren baimena eduki behar du, eskaintza aurkeztu aurretik.

2.2. Eskaintza sinatuko duenak hirugarren baten edo sozietate baten ordezkari izan jarduten badu, eskaintza aurkeztuko duenaren aldeko ahalordetze eskritura ere aurkeztu beharko du, zeinak nahikoa ahalmen izango baitu ondasun higiezinak eskuratzeko. Arabako Foru Aldundiaren idazkari andreak edo haren legezko ordezkariak askietsita egon beharko da eskritura hori.

2.3. Indarrean dagoen legeriaren arabera administrazioarekin kontratuak sinatzea galarazten duten egoeretak batean ez dagoelako adierazpena, sinatuta. Adierazpen honen erudia baldintza administratiboen agiri honen II. eranskinean dago.

2.4. Eskaintza egiten duen pertsona fisikoa (edo pertsona juridikoaren administratzaileak) ondoko lege hauetan arautzen diren egoeretak batean ez dagoelako adierazpena: 5/2006 Legea, apirilaren 10ekoa, gobernuko kideen eta estatuko administrazio orokorreko goi kargudunen interes gatazkak arautzen dituen; 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, herri administrazioetako langileen bateraezintasunena; 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, hauteskundearen araubide orokorrarena. Adierazpen hau II. eranskinean ezartzen den ereduaren arabera egin behar da.



2.5. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzen duten agiriak, Foru Aldundiak edo Ogasuneko ordezkariak eta Gizarte Segurantzak eginak.

Aurreko betebeharrak betetzen dituela frogatzeko berariazko erantzukizunpeko adierazpena egin daiteke. Horretarako IV. eranskineko erredua edo antzeko besteren bat har daiteke aintzat. Adierazpen hori aurkeztuz gero, proposatzen den adjudikaziodunak ziurtagiri egokiak aurkeztu beharko ditu hamar eguneko epealdian proposamena behin betikoa izateko.

2.6. Fidantza sartu edo eratu dela frogatzen duen dokumentazioa.

2.7. Fidantza itzuli behar den banketxea edo aurrezki kutxa eta kontuaren zenbakia (V. eranskina).

Aipatutako dokumentuak, NANaren edo IFZren kopiak izan ezik, jatorrizkoetan edo Administrazioak erkatutako kopien bidez aurkeztu ahal izango dira.

Proposamenak postaz aurkezteko, zehatz-mehatz bete beharko dira Herri Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 80. artikuluan jasotako aginduak, eta horiek bete ezean ez dira onartuko.

## VI.- KONTRATAZIO MAHAIA.

Kontratazio Mahaiaren osaera karatula bereziaren 12. puntuan finkatzen da.

## VII.- ESKAINTZAK IREKITZEA.

Eskaintza ekonomikoen gutun azalak jendaurreko ekitaldian ireki eta irakurriko dira. Ekitaldia noiz (eguna eta ordua) eta non izango den karatularen 13. puntuan zehazten da.

Egintza hori egin aurretik, dokumentazioa jasotzen duten gutun azalak irekiko dira ("B" gutun azalak), eta bertan sartutako dokumentuak aztertu eta kalifikatuko dira; horren akta egingo da, eta lizitatuzaileei hiru eguneko epea eman ahal izango zaie akats materialak edo egitatezkoak zuzentzeko, fidantza ordaintzeko eta eskaintza ekonomikoa aurkezteko izan ezik; azken hori falta bada, eskaintza baztertu egingo da betiere.

## VIII.- ESLEIPENA.

“A” gutun azalak jendaurrean irekitzen diren ekitaldian Kontratazio Mahaiak ondasuna eskaintza ekonomiko onena egin duenari esleitzea proposatuko du. Esleipena eskaintzak ireki eta hurrengo egunetik HOGEITA HAMAR EGUN BALIODUN pasatu baino lehen egingo da, edo esleipendunek falta diren agiriak aurkeztu eta gero.

## IX.- PREZIOA ORDAINTZEA.

Behin betiko esleipena jakinarazi ondoren, esleipendunak HILABETEKO epean ordainduko du esleitutako zenbatekoa. Epe hori igarota diru sarrerarik egiten ez bada, esleipenari uko egin zaiola ulertuko da, eta fidantza galduko da. Kasu horretan, eta indarrean dagoen kontratu legeriaren arabera, bigarren eskaintzarik onenari esleitu ahal izango zaio finka.

## X. HIGIEZINAREN BALDINTZEN AGIRIA ETA DOKUMENTAZIOA.

1.- Enkantearen baldintza agiriak bi modutan aztertu edo eskuratu daitezke: Arabako Foru Aldundiaren Demografia Erronkaren Zuzendaritzako bulegoetara (Probintzia plaza, 14 – 1. solairua



atzealdean, Gasteiz) joanda, bulego orduetan, eta Arabako Foru Aldundiaren web orrian sartuta ([www.alava.net](http://www.alava.net)).

- 2.- Enkantean jarri beharreko ondasun higieziinei buruzko dokumentazioa Arabako Foru Aldundiko Demografia Erronkaren Zuzendaritzan eskura daiteke, baita Arabako Foru Aldundiaren web orrian ([www.araba.eus](http://www.araba.eus)) eta Arabarri SA sozietate publikoaren web orrian ([www.arabarri.net](http://www.arabarri.net)) ere, edo posta elektronikoko honetan eskatuta: [retodemográfico@araba.eus](mailto:retodemográfico@araba.eus).

#### XI.- SALEROSKETAREN BALDINTZAK.

1.- Enkantean ateratako higiezinak “diren bezala” onartzen dira salmentari begira eta, beraz, egiatan baldintza agirietan edo jabetza tituluetan adierazitakoa baino handiagoak edo txikiagoak badira, alderdiek ez diote ezer itzuli beharko elkarri.

2.- Arabako Foru Aldundiak, Kode Zibilean ezarritakoaren ondorioz, finkaren egoera juridikoak eragin lezakeen ebikzio ororen gaineko erantzukizuna izango du.

3.- Arabako Foru Aldundiak juridikoki eta erregistroan erregularizatu beharko ditu esleitutako ondasunak, eskritura publikoa sinatu aurretik edo esleipendunei ondasunok eman aurretik.

4.- Adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu higiezinaren jabetza eta erabileraren ondoriozko gastu guztiak, hura bere esku jarri eta gero (baldintza agiri honen XIV. klausulan ezarritakoarekin bat etorritik). Hortaz, ordutik aurrera Administrazioak ez du edukiko adjudikatutako higiezinaren gaineko erantzukizunik, ezkutuko akatsengatik izan ezean.

5.- Arabako Foru Aldundiak ez du izango inolako erantzukizunik enkantean esleitutako finkaren gainean aldeztu aurretik zeuden eskubideak, legez ezarritakoak, baliatzearen inguruan; dena den, ebikzioaren ondoriozko saneatzea egin beharko du, Kode Zibilean edo bestelako lege testuetan ezarritakoaren arabera.

#### XII.- TRIBUTUAK, NOTARIO GASTUAK ETA ERREGISTRO GASTUAK.

Salerosketa formalizatzeko eta inskribatzeko sortzen diren notario eta erregistro gastu guztiak esleipendunak ordainduko ditu, egin beharreko banaketan barne.

Salerosketa kargatzen duten zerga guztiak alderdiek ordainduko dituzte, indarreko legerian ezartzen denarekin bat etorritik.

#### XIII.- ESKRITURAK SINATZEA.

Ondasun higieziina adjudikatzeko prezioa osorik ordaindu eta gero, adjudikaziodunak eskriturak sinatzeko eskatu ahal izango dio enpresari.

Formalizazio horrek eta, hala badagokio, erregistroan inskribatzeak eragindako gastuak eroslearen kontura izango dira oso-osorik.

#### XIV.- HIGIEZINAK ESKURA JARTZEA.

Higiezinak esleipendunaren eskura egongo dira, esleipen prezio osoa benetan ordaindu ondoren eta, edonola ere, eskriturak sinatzen diren unean.



Gasteiz, 2021eko otsaila.





## ERANSKINAK

I.- Eskaintza ekonomikoa.

II.- Bateriaezintasunik edo debekurik ez egotearen adierazpena.

III.- Abal eredia.

IV.- Erantzukizunpeko adierazpena, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela dioena.

V.- Eskudirutan jarritako fidantza itzultzeko agiria.

VI.- Enkantean jarriko diren ondasun higiezin zerrenda eta lizitazio oinarriak.

VII.- Enkantean jarriko diren ondasun higiezin deskripzioa.



## I. ERANSKINA

### ESKAINZA EKONOMIKOA

\_\_\_\_\_ jaunak / andreak (NAN: \_\_\_\_\_); helbidea:  
\_\_\_\_\_; telefonoa: \_\_\_\_\_; posta elektronikoaren  
helbidea: \_\_\_\_\_), bere izenean edo  
\_\_\_\_\_ jaunaren / andrearen (IFZ/NAN: \_\_\_\_\_);  
helbidea: \_\_\_\_\_) ordezkartzan (horretarako ahalordea  
Zuzenbidearen arabera askietsi da) hauxe

### ADIERAZTEN DU:

I.- Arabako Foru Aldundiaren jabetzako higiezinak besterentzeko enkante deialdiaren iragarkiaren berri izan duela.

II.- Ezagutzen dituela lizitazio hori arautzen duten karatula partikularra, baldintza ekonomiko-administratiboen agiria eta eranskinak, eta, horregatik, oso-osorik onartzen dituela.

III.- ..... LOTEA izeneko higiezina erosteko enkantean parte hartzen duela, eta horregatik diru kopuru hau eskaintzen duela: ..... euro (letran), eskualdaketa kargatzen duten zergak eta gastuak aparte.

....., 2021eko ..... aren .....(a)

Izpta.:



## II. ERANSKINA

### **BATERAEZINTASUNIK EDO DEBEKURIK EZ EGOTEAREN ADIERAZPENA**

\_\_\_\_\_ jaunak / andreak (helbidea: \_\_\_\_\_); telefonoa: \_\_\_\_\_; posta elektronikoaren helbidea: \_\_\_\_\_),  
\_\_\_\_\_ jaunaren / andrearen (helbidea: \_\_\_\_\_); identifikazio fiskalerako zenbakia: \_\_\_\_\_) izenean eta ordezkartzan, hauxe adierazten du bere erantzukizunpean:

Ez behean sinatzen duenak ez, hala badagokio, hark ordezkatzeko duen erakundeak ez dutela indarreko araudian jasotako bateraezintasunik eta debekurik administrazioarekin kontratuak egiteko.

Ez sinatzailea ez ordezkatzeko duen pertsona juridikoaren administratzaileak ez daudela sartuta apirilaren 10eko 5/2006 Legearen, abenduaren 26ko 53/1984 Legearen eta ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren ezein kasutan.

Hori guztia dela eta, agiri hau sinatzen du \_\_\_\_\_(e)n, 2021eko \_\_\_\_\_aren \_\_ (e)(a)n.

Izpta.:  
NANa



### III. ERANSKINA

#### ABAL EREDUA

\_\_\_\_\_ (kreditu entitatearen edo elkarrekiko bermerako sozietatearen izena) entitateak (IFZ: \_\_\_\_\_; egoitza, jakinarazpenak eta agindeiak jasotzeko: kalea/plaza/etorbidea: \_\_\_\_\_; posta kodea: \_\_\_\_\_; herria: \_\_\_\_\_),

\_\_\_\_\_ (ahaldunen izen-abizenak) jaun-andreen bitartez, agiri honen behealdeko askiespenaren arabera egintza honetarako ahal nahiko baitute,

#### **ABALA EMATEN DIO**

(idatzi abaldunaren izen-abizenak edo sozietatearen izena) \_\_\_\_\_(r)i (IFZ: \_\_\_\_\_), \_\_\_\_\_ an (bermea eratu beharra ezarri duten arauak eta artikulak) xedatzen dena dela bide, Administrazioaren aurrean ondoko betebeharrak hauengatik erantzuteko: (kontratua edo betebeharra zehaztu) \_\_\_\_\_; zenbatekoa: (hizkiz eta zenbakiz) \_\_\_\_\_.

Abala eman duen entitateak bere erantzukizunpean adierazten du Herri administrazioen kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak 56.2. artikuluan ezartzen dituen betekizunak betetzen dituela. Abal hau solidarioa da behartu nagusiarekiko, eta eskusioaren onurari uko eginda eta Administrazioaren lehen eskaerarekin batera ordaintzeko konpromisoarekin eman da, azaroaren 8ko 9/2017 Legean, hura garatu duten arauetan eta Gordailu Kutxa Orokorren buruzko arauetan ezarritakoari lotuta.

Abal hau Administrazioak edo beraren izenean aritzeko legez gaitzen denak azkentzeko edo itzultzeko baimena eman arte egongo da indarrean, azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta legeria osagarrian ezartzen denarekin bat etorritik.

(Lekua eta data)

(Entitatearen izena)

(Ahaldunen izenpea)

**AHALORDEAREN ASKIESPENA, IDAZKARITZA OROKORRAK EGINA  
ADMINISTRAZIOAREN ASKIESPEN LANETAN**

Data

Zenbakia edo kodea



#### IV. ERANSKINA

#### ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

\_\_\_\_\_ jaunak / andreak (helbidea:  
\_\_\_\_\_), bere izenean edo  
\_\_\_\_\_ jaunaren / andrearen (egoitza:  
\_\_\_\_\_); NAN: \_\_\_\_\_)  
ordezkaritzan (horretarako ahalordea Zuzenbidearen arabera askietsi da), hauxe adierazten du bere  
erantzukizunpean:

Izenpetzaileak edo, hala behar izanez gero, ordezkatzan duen entitateak egunean dituela zerga eta  
Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

Hori guztia dela eta, agiri hau sinatzen du \_\_\_\_\_(e)n, 2021eko \_\_\_\_\_aren \_\_ (e)(a)n.

Izpta.:



## V. ERANSKINA

### ESKUDIRUTAN JARRITAKO FIDANTZA ITZULTZEKO AGIRIA

\_\_\_\_\_ jaunak / andreak (helbidea: \_\_\_\_\_; telefonoa: \_\_\_\_\_; posta elektronikoaren helbidea: \_\_\_\_\_),  
\_\_\_\_\_ jaunaren / andrearen (helbidea: \_\_\_\_\_; identifikazio fiskalerako zenbakia: \_\_\_\_\_) izenean eta ordezkartzan, hauxe

#### ADIERAZTEN DU

AFAk banku/kutxan (adierazi izena).....  
duen kontu korrontean ..... euroko zenbatekoa gordailutu duela (zehaztu zenbatekoa letraz eta zenbakiz), ..... higiezina enkante ireki bidez besterentzeko behin-behineko fidantza gisa.....

#### ESKATZEN DU

Goian aipatutako finkaren esleipenduna ez bada, behin-behineko fidantzari dagokion zenbatekoa jarraian adierazten den kontu zenbakian sar diezaiotela (bete hurrengo orriko dokumentuan eskatutako informazioa; **jatorrizko formatuan aurkeztu eta banku erakundearen zigilua izan beharko duena**).

\_\_\_\_\_, 2021eko \_\_\_\_\_aren \_\_ (a).

Izpta.:



**\*- Hirugarrenen fitxategi balioduna PDF artxiboa da -\***

**HIRUGARRENEN FITXA / FICHA DE TERCEROS**

<i>Hirugarrenaren datuak / Datos del Tercero</i>			
IFZ/NIF	SOZETATEAREN IZENA / RAZÓN SOCIAL		
IZENA/NOMBRE	1.ABIZENA / APELLIDO 1	2.ABIZENA/APELLIDO 2	
HELBIDEA/DIRECCIÓN		POSTA KODEA/CÓDIGO POSTAL	
HERRIA/LOCALIDAD	UDALERRIA/MUNICIPIO	PROBINTZIA/PROVINCIA	HERRIALDEA/PAÍS
1. TELEFONOA / TELÉFONO 1	2. TELEFONOA / TELÉFONO 2	FAXa	e-maila

***AFAk ordainketak egiteko bankuko datuak / Datos bancarios para que D.F.A. le realice pagos***

FINANTZA ENTITATEA / ENTIDAD FINANCIERA

BANCO	
IBAN	SWIFT

*Ez bada banku konturik behar, markatu / Marcar, si no precisa cuenta bancaria*



## VI. ERANSKINA

### ENKANTEAN JARRIKO DIREN ONDASUN HIGIEZINEN ZERRENDA

<b>LOTE A</b>	<b>IZENA</b>	<b>LIZITAZIO OINARRIA</b>
1	A ETXE BIZITZA Sor Felicitas kaleko 24an, Samaniego, Araba	100.286,00 euro
2	B ETXE BIZITZA Sor Felicitas kaleko 24an, Samaniego, Araba	105.417,00 euro
3	C ETXE BIZITZA Sor Felicitas kaleko 24an, Samaniego, Araba	110.475,00 euro
4	D ETXE BIZITZA Sor Felicitas kaleko 24an, Samaniego, Araba	113.533,00 euro
5	E ETXE BIZITZA Sor Felicitas kaleko 24an, Samaniego, Araba	103.908,00 euro
6	F ETXE BIZITZA Sor Felicitas kaleko 24an, Samaniego, Araba	114.062,00 euro
7	GARAJEA Santikurutze Kanpezun, Araba, La Villa kaleko 24 eta 26 zk., 1 plaza.	12.226,31 euro
8	GARAJEA Santikurutze Kanpezun, Araba, La Villa kaleko 24 eta 26 zk., 2 plaza.	9.967,10 euro
9	GARAJEA Santikurutze Kanpezun, Araba, La Villa kaleko 24 eta 26 zk., 3 plaza.	9.634,87 euro





## VII. ERANSKINA

### 1 LOTEA

A ETXEBIZITZA Sor Felicitas kaleko 24an, Samaniego, Araba. Beheko solairua, azalera: 100,07 m<sup>2</sup> gutxi gorabehera; udalerriko katastro erreferentzia: 52, 2 poligonoa, 772 lurzatia, 1 eraikina, 1 zerga unitatea.

### 2 LOTEA

B ETXEBIZITZA Sor Felicitas kaleko 24an, Samaniego, Araba. Beheko solairua, azalera: 111,19 m<sup>2</sup> gutxi gorabehera; udalerriko katastro erreferentzia: 52, 2 poligonoa, 772 lurzatia, 1 eraikina, 2 zerga unitatea.

### 3 LOTEA

C ETXEBIZITZA Sor Felicitas kaleko 24an, Samaniego, Araba. Duplexa, lehen solairua eta teilatupekoa, azalera: 109,30 m<sup>2</sup> gutxi gorabehera; udalerriko katastro erreferentzia: 52, 2 poligonoa, 772 lurzatia, 1 eraikina, 3 zerga unitatea.

### 4 LOTEA

D ETXEBIZITZA Sor Felicitas kaleko 24an, Samaniego, Araba. Duplexa, lehen solairua eta teilatupekoa, azalera: 109,30 m<sup>2</sup> gutxi gorabehera; udalerriko katastro erreferentzia: 52, 2 poligonoa, 772 lurzatia, 1 eraikina, 4 zerga unitatea.

### 5 LOTEA

E ETXEBIZITZA Sor Felicitas kaleko 24an, Samaniego, Araba. Duplexa, lehen solairua eta teilatupekoa, azalera: 109,30 m<sup>2</sup> gutxi gorabehera; udalerriko katastro erreferentzia: 52, 2 poligonoa, 772 lurzatia, 1 eraikina, 5 zerga unitatea.

### 6 LOTEA

**E ETXEBIZITZA** Sor Felicitas kaleko 24an, Samaniego, Araba. Duplexa, lehen solairua eta teilatupekoa, azalera: 109,30 m<sup>2</sup> gutxi gorabehera; udalerriko katastro erreferentzia: 52, 2 poligonoa, 772 lurzatia, 1 eraikina, 6 zerga unitatea.

### 7 LOTEA

GARAJEA Santikurutze Kanpezun, Araba, La Villa kaleko 24 eta 26 zk., 1 plaza. Azalera: 18,40 m<sup>2</sup>.

### 8 LOTEA



GARAJEA Santikurutze Kanpezun, Araba, La Villa kaleko 24 eta 26 zk., 1 plaza. Azalera: 15,00 m2.

### **9 LOTEA**

GARAJEA Santikurutze Kanpezun, Araba, La Villa kaleko 24 eta 26 zk., 1 plaza. Azalera: 14,50 m2.

7, 8 eta 9 loteak lehentasunez salduko zaizkie La Villa kaleko 24 eta 26 atarietako etxebizitzentzako jabeen.